

Ibarla, Nafarroa Behereko udalerrria da, Iholdiko kantonamenduan eta Oztibarre ibarrean kokatua. Orain 92 biztanle baldin baditu, 1934an, Manex Erdozaintzi-Etxart sortu zenean, askoz jende gehiagok egiten zuen lan nekazaritzan eta abelzaintzan. Ibarlak ere Iparralde barnealdeko herri frangoren behehitze demografiko larria jasan du.

1934ko uztailaren 15ean munduratu zen, beraz, Herri Ukatuaren Poetatzat jo dezakegun Manex Erdozaintzi-Etxart, Piarres Erdozaintzi-Etxarten eta Paula Indabururen zortzi semeetarik seigarrena, Pekotxea etxaldean. Orduko Euskal Herriko giroa denbora haietan oso fededuna eta euskalduna zen. Pekotxeko Manexek bazituen hiru osaba apez. Horietarik bat misiolari ibili zen Txinan zehar eta anaia zaharrenak ere apezteko bidea hartua zuen. Alabaina, fedeari euskalduntasuna lotzen zitzaion eta honen seinale nagusia euskararen eguneroko erabilpena zen.

Beti halako nostalgia hunkigarri batez agertu zuen Manexek, bere

haurtzaroa moztura garaizagatik galdu zorion aintzira bailitzan. 1938an Frantses eskolan hasirik, laster Ibarlan eraman zen predikatze baten karietara, frantziskotar fraile izaiteko deia bihotzean nabaritu zuen.

Manex Erdozaintzi-Etxart (1934-1984).
Euskal idazle behenafarra.





Ibarla. XII. mendean dokumentaturik agertzen den Behe Nafarroako herri txiki horretan %100 dira euskaldunak.

Halatan, zortzi urte baizik ez zituen Manexek, herria utzi zuelarik, Donapaleuko aurre-komentura joateko. Ikasle argi harentzat Ibarlatik urruntzearen lehen urratsa zen. Urruntzeak mina, agian idazteko gostua eragingo zion.

Ondoren, 1945etik hara Corräze departamenduko Brive hirian zegoen Akitaniako frantziskotarren seminarioan iragan zituen urte anitz. Manex Erdozaintzi-Etxartek honela azaltzen digu bere euskalduntasunaren sustraitzea:

"Horrela hasi zitzaidan nere sort-herriarekilako atxikimendua. Olerkiaren hitzek egin zituzten beren erroak nere gogo-bihotzetan, eta beren bidea zilatu zuten. "

Herriarekilako urruntasunak herriari buruzko jakin-nahia hazten zion. *Gernika* aldizkarian, adibidez,

argitaratzen ziren kopia edo kantuak kopiatzen eta begiratzen zituen amoltsuki. Briveko garaietan, 1949ko martxoaren 24an, papereratu zuen erdaraz ezagutzen diogun lehen olerkietarik bat *Desterratuaren Eguna* titulupean. Handik laster, 1950eko abuztuaren 21ean euskaraz idatzi zuen, oporretan zegoelarik Donapaleun. Horra zer dion Manexek une haietaz:

"Ni 11 urtetan, nere estudioak egiteko euskal ingurunetik kanpo gertatu nindukan. Eta oroit nauk nola hasi nintzen etxekoei, kolegioko berriak euskaraz idazten, eta amari bere bestako, poema ttipi batzuren igortzen... Gero hogeitau urte inguru horretan, Azkueren hiztegia lagun batek emanik hasi nindukan hegoaldeko idaztiak irakurtzen, bereziki Axularren Gero lantu nikan; eta artikulutxo batzu idazten nitikan Herria kazetari igortzeko."

Iduri zuen, izkribatzea izan zela Ibarlako poetaren Euskal Herriarekilako lotura sentimental bakar baina azkarra. 1951n Britainiako Quimper hirian bi urte pasatu zituen etxera itzuli gabe, nobiziadoaren egitera. "Profesio ximplea" konpliturik, 1952an aspaldiko lagun zuen Martin Bellemur -Aita Xalbat- armendariztarrarekin Beziers-era joan zen eskolastikaren eta filosofiaren ikastera.

Denbora haietan zehar zituen Manex Erdozaintzi-Etxartek, Piarres Lafitte, Aita Donostia, Hiriart-Urruty eta gaineratikoak bere bidean kurutzatu, batez ere, idazteko premiak 1954tik goiti *Gure Herria* hiruhilabetekarian kolaboratzera bultzatu zuelarik.

Filosofia ikasketak Pauen bukatu zituen eta orduan, hain luzaz abandonatu Euskal Herria sekula baino hurbilago zeukan. Handiago ere euskal kulturaren partaide izaiteko gogo-gutizia. *Jakin* aldizkariaren sorreran parte hartu zuen 1956an. Iratzeder olerkariari poesia aipatzen zion gutuna bidali zion eta Piarres Lafitterekin eztabaida idatzia eduki zuen *Gure Herria*-ren orrialdeetan. 'Euskal Kultura Baten Behar Gorria' izeneko artikuluan, 1956ko euskal mundu kulturalaren ikuspegi zorrotza eskaini zuen:

"Eskualdun izaiteko ez da aski egitea bilkura bat heben, bazkari bat hor, frantsesez eginikako mintzaldi zonbeit artetan, Ez da aski dantza, pilota eta ohitura zonbeiten begiratzea."

Artikulu hartan, egoera aztertzeaz gain, euskararen inguruko proposamenak herrokatzen zituen eta hiru zorigaitz opatzen *M. Ostologia* izengoitiaz. Piarres Lafitteren erantzuna berehalakoa eta mindua



Pekoetxea, Manex Erdozaintzi-Etxarteren jaiotetxea Ibarlan.

3

suertatu zen, doinu lakonikoaz, egoera batere zalantzan jarri gabe ihardesten zioiarik:

"Otoi ez zitela hainbertzeraino hasarra bertzen kontra; eta dakizunaz geroz zer den egiteko, lot zaizkio zuhaur lanari! "

Manex, Ambrosi anaiaren ezkontzan 1956an. Argazkian Manexen gurasoak, zortzi semeak eta Xaxi ezkonberria.





1943an Donapaleuko frantziskotarrengana joan zen ikastera eta bertan bi urte egin zituen. Argazkian eskuinetik hasi eta lehen lerroko hirugarrena da Manex.



1947-48 ikasturtea Briven. Lehen lerroan, eserita, eskuineko bigarrena.



Piarraño Erdozaintzi-Etxart, Txinan misiolari ibili zen Manexen osaba (eskuinekoa)

Piarres Lafitteren gomendioaren obratzeari uztartu zitzaion Manex Erdozaintzi-Etxart, urteek zeramaten bakardade kultural latzean.

1956an Parise ondoko Orsay-ra joan zen, teologiaren sakontzera. Handik euskal ikasleen mugimenduak jarraitzen zituen. *Jakin*-en Iparraldeko berri-emaile bakarra zen, eta Eusko *Gogoa*-n, *Egan*-en nahiz *Olerti*-n ageraratzen zituen olerkiak.

Bizkitartean, griña barnakorra segituz, euskara, kultura eta fedea batzeko beharraz aritu zitzaion Narbaitz kalonjeari gutunez. Konsensus baten bila bazebilen, argi zeukalako Iparraldeko bizi-moldea oso aldatzen ari zela eta lekuan lekuko apezaren jendarteko tokia aztertzekoa zela:

"Gu fraile eta apezak ez gira Euskal Herriaren buruzagi jartzen ahal, bena gure ahale arabera da eskualdunen beren eskualdangoari ohartaraztea."



Gure Herria hiruhilabetekariaren lehen alearen azala. 1954tik aurrera kolaboratzailea izan zen bertan Manex.



Manexen fraide-urteak Pauen (1951). Argazkian Manex, gurasoak eta bere bi anaia Ellande eta Pettan.

Urte haietan gertakari askok inarrosi zuten Manexen bizitza: batzuk zorionekoak, adibidez, Italian gaindi ibili zenekoa eta, beste batzuk ilunak, hala nola, 1957an aitaren hiltzea.

"Etxetik urrun nintzen, Parise ondoan nere ixtudioak egiten."

idatzi zuen gero kolpe gogorraren oihartzunez. Orduan ere, pilpilean zegoen Algeriako gerlaz arranguratsu agertu zen Manex eta hor finkatu zen herrialde zapaldu guzien askapen borrokarekako elkartasun oinarria.

1958ko uztailaren 20an apezte zuen, Xalbatekin batera. Ordea, munduarekilako lotura dudaz eta ikaraz osatzen zela senditzen zuen Manex Erdozaintzi-Etxartek:

Zendako Jauna

Egin ninduzun hain sendikor munduko Nahigabeen bihotz minen karreatzeko?

(1958an idatzi zuen olerki argitaragabea)

Zena zela, hamalau udaberriz Euskal Herritik kanpo egonik azkenean, 1959ko abuztuan Donapaleuko komentuan apez geratzeko etorri zen Manex. Hainbeste denboraz herria susmatu, sumatu, urrunetik usaindurik jiten zaio poetari herriko errealitateari juntatzeko parada. Eta ez alferretan: herririk herri lan pastoral handia eraman zuen, Oztibarreko Eskualdun Gazteria mugimenduaren omonier, misione predikatzen eta laikoen elizaren barneko lekuaz arduratzen.



Iparraldeko gazte-talde bati Arantzazu erakusten 1958an, apaiztu zen urtean, hain zuzen.

Fede mailako lan erraldioen garaiak, euskalgintza sailean ere aberatsak izan zitzaizkion: klasikoak sakondu zituen, euskaltzaleekilako harremanak sendotu, Jon Etxaide, K. Mitxelena, J. Zaitegi, Norbert Tauer, J. M. Barandiaran, J. San Martin, S. Onaindia edo L. Villasanterekin demagun. Enbata batasun sortu berriaren bileretan parte hartzen zuen eta kontzilioaren irakaspenak jarraitzen. Euskarari gero eta hurbilago zegoen. Halako urtze bat moldatuz, elizak pobre, umil, amoltsu eta euskaldun behar zuela sinesten zuen.

1964-1969ra berriz joan zen Parisera ikastera, psikologia eta, bereziki, talde-dinamika, pertsonen arteko komunikazioa, hots. Parisera

bigarrenkoz zozalarik, ikas-denbora barne-hazkurri baliatu zuen, bere hitzen arabera:

"Eskual Herrian iragan dituztan urte horietan, ez dut hainbeste denborarik izan liburu eta kazeta irakurtzeko, moimendu eta ideien segitzeko, gogoia kasik arunt arrotua bainuen mundua inguratzen eta orhatzen duten oraiko aldeeri. Nahi dut ene jakitatea berri eta ene pentsakera barnatu."

1965ean, bizkitartean, dolozko urtea higitu zitzaion, anaiaren istripuz gaitzearekin. Primaderan hiru poema idatzi zituen: *Dolozko izarrak*, *Iraun baleza* eta *Mundu zabalerako*. Kontzilioaren bukaerak eta 1968ko maiatzak Parisen harrapatu zuten Manex. Ondar gertakari honen azterketa *Jakin* aldizkariaren orrialdeetan sartu zuen 'Egunean eguneko borroka' titulupean. Mundu berria iragartzen zuen Manex Erdozaintzi-Etxartek. 1970eko hamarkadan, beste askok bezala, bere utopiak errealitate bihurtzeko obrei lotu zitzairen. Euskal kulturaren alorrean gero ospe gehiago erdiesten ari zen Ibarlako olerkaria. Herriaren suntsitze izigarriari kolpe kolpe eman ihardespeneak ziren haren poemak. *Populu bat xutik* (1967) edo *Hil zorian*


ote gara? (1969) giro horretako ondorioak ziren. *Herria izerditan* Burgoseko auziaren oihartzuna zen adibidez.

Utopiak obratzeko orduan, Manex Erdozaintzik bat bete zuen bere betiko lagun Xalbat eta Santosekin: 1972an Domintxineko anaidia moldatu zuten Raforttoenean. Orduetik hara, baserri hori halako, bake eta pentsagune bilakatu zen, politika, kultura eta fede mailan. 1972ko Omia Sainduz ama zendu zitzaion eta berriz ere, joaldi gogorra jasan zuen Manexek. Halarik ere, herri-elkarteetan lan sakonak konplitzen segitzen zuen, poetak herriaren beharra bailuen eta poesiaz herria inarrostean ahal bailitzan.

Sinestez indartsu, omore eta gogo onez ardura, tematu zen egun guzietako zereginetan. Fededunak batasunaren langile gisa demagun: Manexek euskararen erabilpena sustatu nahi zuen elizetan, taldean bilduak ziren Jean Hiriart-Urruty, Piarres Charriton, Eñaut Larralde, Mixel Itzaina, Peio Ospital, Beñat Ameztoui, Klaudio Harluxet, Jeanne Davant eta beste anitzekin batera.


Gainera, Raforttoeneko garaiak arras emankorrak suertatu ziren literatura mailan: *Bizitza pilpirak*, *Herri honen errailetan* eta *Nafarroari poema irekia* bertan osatu zituen, Etxarriko

Jakin aldizkarian aritu zen Iparraldeko berriemate lanetan.



Axularen Gero, Erdozaintzi-Etxartek sakon eta gogoz landu zuen liburua.

eskolan irakas-orduak eskaini bitartean. Halatan, 1978an, urte luzeetan zehar metatu olerkiak oro bateratu zituen Manexek, eta Elkar argitaletxearen eskutik, *Hinki-Hanka* bilduma agertu zen.



Donapaleuko frantziskotarren kalostrepea.


1974an Martin Bellemur, Xalbat eta Mari- Gabriellekin suitzan. Xalbat lagun handia izan zen Manexek eta 1982an hura hil zenean sakon-sakonean sentitu zuen.



1978ko apirilean, berrogeita hiru urtetan, Akitaniako frantziskotarren probintzial izendatua izan zen. Aukera zaila, baina onartu zuen Manexek sei urtez eramango zuen kargua, Domintxinen bizi izaten segitzearen baldintzapean. Tolosan, Bordelen, Pauen, Briven edo Beziersen zeramatzan egunak eta asteburuak ahal bezainbat Domintxinen. 1981ean Ameriketara egon zen, serora talde baten barne-dinamikaren bultzatzen. Urte gogorak zirela ere ohartzen zen, noiztenka bere lan aniztunaren helburua ez baitzuen zehatz ikusten. Domintxineko anaidiak onarpena nekez erdiesten zuen bestalde. Baina, denbora lanpetu haiek, 1982ko azaroan Martin Bellemur, Xalbaten

herioa jasan arren, literatura eremuko ezagutzarenak agitu ziren: 1983ko apirilean euskaltzain urgazle deitu zuten eta Herri Ukatuaren Poeta zinez ohoratua senditu zen.

1984an, bizitza osoa euskararen eta euskaraz hedatu fede xehearen alde lan egin ondoan, Ebiakoitz Sainduz eritu zen Manex Erdozaintzi-Etxart. Hilabete beraren 21ean Tolosako eritegi batean sartu zen, apirilaren 29an berrogeita bederatzita urtetan itzaltzeko. 1984ko maiatzaren 1ean, frantziskotarren Donapaleuko egoitza ttipiegi geratu zen, haren hileta-elizkizunetan azken omenaldi ixilaren emaitako bildua zen euskal Kulturako, fede munduko, politikako eta herrietako jendeen aterbetzeko.



1973an Fededunak elkarteari idatzitako gutuna, eskaini zioten kargua onartzeko.

Manex Erdozaintzi-Etxartengan aipa genezakeen lehen utopia, eliza berriarena izango zen dudarik gabe. Kontzilioaren garaikide izanik, Erroman hartu erabakiak egiaztatu nahi zituen. 1972an, Raforttoeneko anaidia eraiki zuenean, amets horren gibeletik zebilen. Raforttoenea idatz-leku paregabea zen, baita otoitz eta adiskidetasun gune beroa ere. Olerkariak sinesten zuen mundu

berriak eliza berria, Euskal Herrian berria eta euskaraduna behar zuela. Indarrak galdu arte, segurtantza horren bermatzen higatu zen Manex Erdozaintzi-Etxart. Lehen seinalatu dugun Fededunak elkartearen bitartez, asmoa, elizaren baitan, euskararen akulatzea zen, haurren kateximalanen itzultzeaz arduratuz. Fededunak batasunaren barne-aldizkarian eliza xumearen xedea errepikatzen zuen, 1974ko 'Elizaren jokaera' deitu txoxtenean, egoerari buruzko oharpen minberak papereratuz:

"Gure herri zapalduaren aurrean xut-xuta eta handi-handia dago eliza ofiziala; gure herriaren borrokatarik aparte, Eliza "baketiarra" itzulpenak eta itzulpenak egiten edo itzulpenik gabe!, herritarren kexua jabaitzen eta ukatzen."

Urteak joan arau, Manex Erdozaintzi-Etxartek iraultza marxistaren kontzeptua erantsi zion euskararen eta elizaren arteko zubiari, jadanik bitxi zirudien sinkretismoa moldatuz: euskaltzale, abertzale,



Raforttoenea, Dominintxeko anaidiaren egoitza. 1972. urtean Santosek, Xalbatak eta Manexek eratu zuten anaidia.

sozialista, iraultzale eta kristau. Sinkretismo arraro horren oinarriak azaldu zituen Manexek *Hemengo elizari* deitu koplak idatzi zituelarik, kritikari zorrotz, kalonje, obispo, notable eta jendarmeak zaku berdinean sartuz, bestelako eliza moldatzearen ildotik. Ildo aberats horrek eraman zuen Manex Erdozaintzi-Etxart, Donostian 1978ko abuztuaren 28tik irailaren 21era, Erlijioso Bizitzaren I.Jardunaldietan hitzaren hartzera. Argiki agertu zituen han bere xedeak:

"Euskaldun izate honek eta Euskal Herrian bizitze honek ematen eta emanen diote bere hezur-mamia gure gaurko erlijioso bizitzari."

Manexen buruan, eliza herriaren askapen-borrokaz griña zedin eskatzea zen azken helburu nagusia. Karia horretara ardura, euskal iheslarien alde bermatzen zen Herriarekin apez-taldea sortu eta Donapaleuko frantziskotarrenean blidu zen. Manexek berak, 1972ko gosegreba oroigarriaren denboran, Iholdin, errefuxiatuen aldeko predikua egin zuen, eta 1984an presoan sustenguzko gutuna bidali zion Pariseko prokuradoreren bati.

Bigarren utopia izan zen, menturaz, Euskal Herri berriarena. Raforttoeneko anaidiak Donapaleuko kantonamenduko bizitza ekonomikoa partekatzen zuen: Xalbat laborarien laguntza-lanetan ari zen: Santos Beloki Oztibarreko apezpei eskukaldi emaiten eta Manex, psikologo gisa, Etxarriko AFMR eskolan irakasle. Euskara gerorako garapen guzien zutabe zela sinetsiz, inplikazio sozial aniztunak gidatu zituen Manexen urratsak, askoren kidegoan noski, lekuan lekuko beharrak estimatuz eta, batez ere, euskararen irakaskuntza sustatuz. Halatan, 1976ko azaroaren 11n Donibane Garaziko gau-eskola abiarazi zuen eta handik zenbait asteren buruan, Donapaleukoa. Irakaskuntzaz oso kezkatu zebilen Ibarlako poeta. Bazekien euskara galtzen ari zela eta neurriak hartzekoak zirela.

Herri kontratu baten ondorioz, Donapaleun agertu zen *Herriz Herri* astekariaren plantatzea bultzatu zuen. Zuzendari hautatua izan zen. 1980ko azaroaren 20ko lehen zenbakiaren editoriala kometitu zuen. *Herriz Herri*-k Iparralde barnealdeko berriak eskaintzen zituen eta, aspaldiko partez, irakurleak hurbileko informazioa eskura zezakeen. Gure eskualde erdi-loakartuarentzat arras gertakari eta fenomeno garrantzitsua izan zen.

Irakaskuntzak formazioa ere behartzen zuen. Seaska-k premia gorriak zituen orduan irakasle gaien formatzeko eta lau urtez Manex Erdozaintzi-Etxartek ikastaroak kudeatu zituen, talde-lanaren lemaren inguruan. Behin edo bitan, Seaska-ren biltzar nagusi epikoetan moderatzaile postua egokitu zitzaion.

Zeregin erraldoi horien funtsa berak 1977an izkribatu testu batean aurki dezakegu:

"Gure herri hustuek galdu zuten beren giza-bizitzaren ekilibrioa eta hinki-hanka batetan irauten dute. Hasi genuen erresistentzia Osagarriaz axolatu gabe, erresistentzia-sendimendu horrek hegalak eman zizkion, herriaren alde iharduteko."



Jean Marie Diharce, *Iratzeder* euskal idazle lapurtarrarekin Belokeko abadian.



Herriz Herri astekariaren azala.



Maiatz aldizkariaren lehen alean idatzi zuen Erdozaintzi-Etxartek 'Herri honen eraietan' poema.



Maiatz aldizkariaren 1, 2, eta 3 aleak.

Literaturaren edukin berriaren utopiak kitzikatu zuen Manex Erdozaintzi-Etxarten gogoan. Gaingiroki baldin bazen ere, Manexek ezagutzen zituen literatur mugimenduak, bai eta herriko klasikoak ere, eta, bereziki, kopiak eta kantuek laketa zitzaizkion. Olerkia bake-gune bezala ulertuz, egitarau mukurru betean, beti arte bat zaintzen zuen Manexek poesian itotzeko. Batean, Raforttoenean, bestean, Tolosan edo Akitanian zehar trenez zebilela idazten zuen. Ez zitzaion erraz alta herriko bizitza

kulturaletik hurbil egotea. Ordea, urruntasunaren itzala ezabatuz, 1969an Juan San Martinek *Uhin Berri* bilduma agertu zuenean ez zuen Manex Erdozaintzi-Etxart ahantzi. Ibarlako poetaren lanak atera ziren orain famatu egin diren lumen konpainian: G. Aresti, E. Etxamendi, J. Intxausti, J. Lekuona, Mikel Lasa, J. Artze, L. M. Mujika, J. Azurmendi, P. Iztueta, M. Pagola, G. Alfaro, B. Sarasola, J. A. Irigarai, X. Lete, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, X. Kintana, D. Landart, besteak beste.

Bizkitartean, aldizkari ugaritan kolaboratzen zuen: *Gazte, Gure Herria, Herria, Eusko Gogoia, Jakin* edo *Olerti*. Beti euskararen griñari uztarturik, 1969ko irailean, Euskal Idazleen Bilkuran egon zen, euskara batuaren inguruan eztabaidatzen, Txillardegi, Xalbador Garmendia, J. M. Torrealдай, R. Kanblong eta Uhin Berri antologiako partaide zenbaitekin.

Halaz eta idazle-bakardadea Iparraldean garrazki jasanez, oso begi onez ikusi zuen 1981eko *Maiatz* aldizkariaren sorrera. Lehen zenbakirako 'Herri honen erraietan' poemaldi luzea bidali zuen. Elkartasun berria susmatuz, bilkuretara agertzen zen. Halako etsipen ilunaren aitormena egiten dio gutunez, Luzien Etxezaharreta *Maiatz* aldizkariaren arduradunetarik bati, publiko ziren bere bi liburuak aipatuz:

"Hinki-Hanka poema bildumaren oihartzunik ez diat izan, ez Elkar editorialaren aldetik ez irakurleen aldetik; berdintsu gertatu zitakan Gauaren Atzekaldea nobelatxoarentzat... Halako huts kultural bat."

(1983ko hitzak dira hauek)



Uztaritzen, Pierre Laffiteri eginiko omenaldia.

Maiatz batasunak ez zuen 1984tik hara, Manex Erdozaintzi-Etxarten altxorra baztertu: 1985eko maiatzean, separata moldean argitaratu zion Herri honen erraietan eta, zenbait urte berantago, Manex Erdozaintzi-Etxart poesi eta ipuin sariketa, behin edo bitan ireki zuten *Maiatz* elkartekoek.

Jadanik erran dugu, Manex Erdozaintzi-Etxarten obra argitaratua hiru liburutara mugatzen dela. Geroxeago aipatuko ditugu lan literario horiek. Baina, lehen-lehenik, azpimarra dezakegu, Ibarlako poetaren idazkiak aztertzeke daudela. Poesiaz gain, Manex Erdozaintzi-Etxartek artikulu eta saiakera frango papereratu zituen. Egoeraren eta bere pentsamenduaren beharren arabera, gai desberdinak jorratzen zituen hark: erlijioa, psikologia, pedagogia, euskal kultura, euskal soziologia, abertzaletasuna eta bestelako asko.

Gainera, egunen eguneko joanaren neurtzeko, hor dago xeheki Manex Erdozaintziren bizitzaren berri eskaintzen digun poetaren egunkari pertsonala; halaz, idazlearen hara-honaratak aski zehazki berreraiki ditzakegu. Manexek ukaiten eta igortzen zituen gutunen kopiak ere badaude egunkari pertsonal horretan. Ikertu gabeko leize aberatsa daukagu, beraz, eskumenean.

1949an hasi zen Manex Erdozaintzi-Etxart olerki ontzen. Heriotz bezperaraino -azken poema 1984ko

apirilaren 15ean moldatu zuen-ehundaka eresi idatzi zituen. Poesia solteak aldizkarietan daude: *Gazte, Pariseko Elgar, Olerti* edo *Herria*. Bilduma antzekoetan, 1983ko *Trein honen drangadan*, Euskadi-Paris arteko bidaia baten kariatara izkribatua, publikatu gabea da. Erants dezagun, 1977ko Donostia Ipuin Lehiaketara bidali zuen hizlaurko bere kondaketa bakarra, Donapaleuko frantziskotarren sotoetan dela momentuko.

Manex Erdozaintzi

1979an Donapaleun. Argazkian, besteak beste, Bitoriano Gandiaga eta Manex Erdozaintzi-Etxart.



HINKI-HANKA (1978)

Poesi bilduma hau, Manex Erdozaintzi-Etxartek 1978an kaleratu zuen Elkar etxean. 1958 eta 1976 urteen bitartean sortu olerkiak dabiltza *Hinki-Hanka* mardul horretan, Ramuntxo Partarrieu artistak marraztu azalaren gerizan. Hogeita hamahiru poema, Manexen bizitza harri xuriz seinalatzen dutenak, Donapaleun, Domintxanen, Tolosan, Parisen edo Britainian burutuak. *Hinki-Hanka*-ko olerki parrasta bat dagoeneko argitaratua izan da han-hemenka.

Olerkien mami eta hizkuntza hunkigarriaz aparte, *Hinki-Hanka* hasten duen Manex Erdozaintzi-Etxartek berak egin aintzin-solasa da harrigarri, zinezko fedezko akta poetikoa baita. Poetaren hitzek nahi dute egoera poetiko berri baten oinarria iparraldean segurtatu, poesia sozial hutsaren eta kutsu erlijiosoko olerki ohituraren artean landu lirikotasun samurraren ildo irekiz. Hain zuzen ere, Manexen aintzinsolasak, irakurlea atseginaren bide ezezagunetik abiatzera ezteki gomitatzen du:

"Arren, poesia ez da zu eta ni bezalakoetarik kanpo gertatzen. Gurekin sortzen da. Gudan bizi da. Bulta hontan ohartua naiz laborariak, langileak, ofizialeak beren eskuez materia hunkitzen, erabiltzen eta moldatzen dutenak, poetak direla."

15



Zoaz, goazen ostatuetara, merkatuetara, lantokietara, uzinetara, baserrietara, itsasoetara bortuetara, errautsak karrika eta bideetan zikintzen duen jende ostearen ondotik, lurrak, ikatzak, burdinak, zurak, tinduak, keak... itxuraldatzen duen jende ostearen urratsean.... hor gaindi dabila poesia edo hor gaindiko tirabiran mintzo da poesia. Poesia drama bat de eta giza errealitateaz beti mintzo da". (*Hinki-Hanka*, 'Sarrera Gisa' 14-15 orr.)

XEURRIAK

Ahal barutu
 Itzakak itzakori
 Mendiak menderei
 Izarak izareri
 Hameak hameiri
 Bezala

Ahal barutu Eto
 Heniak henieri
 Eskualdeak eskualdeiri
 Probintziak probintziari
 Gure Euzkadia

Ahal barutu
 Koloreak koloreker
 Urak urer
 Harzeak harzeker
 Jaltirak jaltiraker
 Bezala

Ahal barutu nahasi
 Kubertanek bizkaitaneker
 Galufanek gipuzkoaneker
 Arabanek bizkaitaneker
 Euzkaldunak Euzkalduneker

Ez LITAKE Ez

Harri. maritak
 Edo
 Xuei. Joririk
 Abard. - joririk eta
 Poliz. - joririk
 Ez eta
 Aizoa joririk eta auzite joririk
 Sure Euzkadia

(1971/1972)
 M. Erdozaintzi - Etxart

1971.ko Urriaren 7.ko HERRIA. 9
 5-ten orrian argitaratua.

Herrikoitasun aitortu horrengatik agian, Manex Erdozaintzi-Etxart, Herri Ukatuaren Poeta ez da beharko lukeen heinean edo zabaltasunean kontsideratua. "Burruka elea" zekarren ezpainetan olerkariak, geroa bestelakoa izan zitekeelako esperantzaz beterik. Mundu oso bat "xutik" agertzen da, kasik lehen aldikoz mugaz honaindi honetako liburu baten orrialdeetan.

Manex Erdozaintzi-Etxartek 1971n eskuz idatzitako poema hau *Hinki Hanka* poema-liburuan argitaratu zen.

GAUAREN ATZEKALDEAN (1982)

1982an hirurogei ostoko nobelatxoak agertu zen Elkar-en eskutik, *Orhi* sailean. Anitzetan moldatu zuen Manex Erdozaintzi-Etxartek orain irakur dezakegun hau. Alabaina, 1973an poetak 'Ilargi Umea' burutu zuen Beasaingo lehiaketa batera bidaltzeko. 'Izerdi Guneetan' da lan honen beste bertsioetarik bat. Urte luzeetan txukunki landuko zuen obra, azkenean *Gauaren Atzekaldean* titulupean igorri zion Elkar argitaletxeari, 1981eko ekainean.

Berak "nobelatxo" deitzen zuena urrats bat gehiago izan zen Manaxen bizitzan. *Hinki-Hanka*-ko ikuspuntua Euskal Herria baldin bazen, nobelakoa "exilioa" edo "desterrua" zen, exilio politikoa zein ekonomikoa. Iparraldeak jasaten duen minaren alde nagusienetarik bat zen, beraz, nobelaren urrezko haria, oso gutitan gure herrian molde errealista horretan literaturara pasatu izan zena. Ordurarte, bederen, Pariserateko exilio ekonomikoa ironia astunaren zamaz desbalorizatua eta lehertua zen.



17



1981eko uztaila-abuztuan eukaristia ospatzen serotalde batekin New Port-en (EEBB).

Manexen nobelan ez da ironiarik, baizik eta "exilioa" bizitzen dutenenganako, eta hitz bakoitzean gordetzen den elkartasun eta amodio xumea. Testuan zehar banatuak diren nostalgia ttanttei fidatuz, ongi agertzen da zail dela herritik joatea, hargatik iraun behar dela herioak harrapatu edo herrira itzuli arte.

Nobelaren bahea itxuraz ximplea da: Txomin eta narratzailea abiatzen dira Migel itzali berri den beren lagunaren pusken bila, eta pusketan, Migelen ingurraztia kausitzen dute. Halatan,

Migelen Pariseko iharduera, lana, Mirentxurenganako amodioa, borrokak oro osa ditzakete, elementu guzien arteko harremanaren edukiaz griñatuz.

Nobelari dagokionez, hizkera arras trinko eta aberatsean idatzirik dela azpimarra dezakegu, Oztibarreko hiztegiaren hatsa nabaritzen zaiola eta denbora berean, askatasun handiak zilegitu dizkiola bere sumari Manex Erdozaintzi-Etxartek. Horrek *Gauaren Atzekaldea* libertate poetikoaren eremua ere badela baieztatzen digu.


BIZITZA PILPIRAK (1994)

Maiatz elkarteak Manex Erdozaintzi-Etxarten hiltzearen 10. urteburuaren karietara, Bizitza pilpirak titulupean bildu zituen 1982an aldizkarian agertu 1974ko 'Herri honen erraietan', 1977ko 'Nafarroari poema irekia' eta 1980ko '*Bizitza pilpirak*' olerki bilduma solteak. 'Eta erresistentzia herri bat eraiki dugu' izenburuaz Itxaro Borda Amikuzeko idazleak liburuari sarrera eskaini dio:

"Manex Erdozaintzi-Etxartek sua zeukan bihotzean, amoltsutasuna eta xumetasuna ezpainetan, eta zeraman suaz erre gogo zuen duintasuna/dignitatea herriari galera zion zapalkuntzaren sistema."

Erran daiteke, bildumako hiru idazkinak ibai berdinen une desberdinak direla, bakardadearen ur-xirripatik herri bizia elkartasun eta adiskidetasun aintzira gisa harturiko itsaso handira ixurtzen direnak. Hitzetik hitzera iraganarekilako lotura tinkoa senditzen da eta geroaren esperantzak oraingo egoera larriaren onarpena eta aldaketa baimentzen du.





Piarres Erdozaintzi-Etxartek Manexi eginiko erretratua.

Ez zen Manex Erdozaintzi-Etxart akademiak eta unibertsitateak eman aterbeetan idazten zuenetarik, bai, ordea, babes ofizialik gabe ari zen poeta, mututasunak kateatu herri errealarentzat erresistentzia kulturalaren mitoa sustatuz. Hiru olerki sailetan zehar dasta daitekeen solasaren lirikotasun mantsoa itxurazkoa da, eskaera askoren oinarri bortitzak gordetzeko gai doi-doia.

Bizitza Pilpirak bilduma garrantzitsua da eta, noski, horren hedapenaren bidez iparraldeko poeta zintzo, kementsu eta indartsuaren ahotsaren hobeki ezagutzeko parada emaiten digu. Bizirik zegoenean, Manexek bere lanaren oihartzun eskasa seinalatzen zuen. Ordu da, menturaz libertateari hainbat kantu ondu zizkion poetaren bere neurrian estimatzen eta aztertzen hasteko.